


Modulu didaktikoa


bihotzetik

Eskolan euskal auzian izandako
giza eskubideen urraketen biktimekiko
elkartasuna lantzeko proposamena

2016an eguneratua



baketik



baketik

Argitaratzen du: Baketik Fundazioa, Kondeko Aldapa, 5B - 20400 Tolosa (Gipuzkoa) - www.baketik.org

Diseinua eta maketazioa: Quod Sail

Inprimaketa: Hizki inprimategia (Zarautz)

2016ko abendua. 2011n argitaratutako lehen bertsioa oinarri hartuta eguneratua

Laguntzailea:

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Modulu didaktikoa

bihotzetik

Eskolan euskal auzian izandako
giza eskubideen urraketen biktimekiko
elkartasuna lantzeko proposamena

Aurkibidea

I. Aurkezpen orokorra	5
0. Sarrera	5
1. Helburuak	6
2. Garatu eta erabili beharreko funtsezko edukiak	6
II. Ariketa iradokizunak	8
1. Lehen ariketa-multzoa. Iragana eta giza duintasuna	9
2. Bigarren ariketa-multzoa. Oraina eta enpatia	10
3. Hirugarren ariketa-multzoa. Etorkizuna eta bakezko bizikidetzaren oinarriak	11
I. Eranskina	14
Lanerako fitxak	21

I. Aurkezpen orokorra

Sarrera

«Euskal gatazka» edo «euskal auzia» deritzogun honetako giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimekiko elkartasuna ikasgeletara eramatea du helburu modulu didaktiko honek. Bihotzetik izenburua jarri diogu moduluari. Hainbat alderditatik azter dezakegu izenburua (etimologikoa, tipografikoa, hitzez hitzezko esanahia...). Hitzez hitzezko esanahiari begiratuta, «elkartasunaren bihotzetik» adierazten digu; etimologikoki, dirudienez, bi hotsetik edo bihozkatatik esan nahiko luke; tipografikoki, berriz, «bihotz» eta «etika»ren arteko hitz-joko modukoa.

Zailtasun asko daude gai hau ikasgeletan lantzeko. Irakasleek sarri gai delikatuegia eta lantzeko zaila dela sentitzen dute, gizartean iritzi oso ezberdin eta batzuetan kontrajarriak baitaude zehazki transmititu behar denaren inguruan. Beharrezkoak ez diren tentsioen eta beste irakasle batzuen, ikasleen eta gurasoen erreakzioen beldurra ageri da, eta polemika politiko baten erdigunean ez egoteagatik, gai honen lanketa beste testuinguru hezitzaile batzuen eskuetan uzten da, hala nola, familiak edo komunikabideak.

Nola egin nahi duten oso ondo ez dakiten, baina egitea beharrezkoa dela badakiten hezitzaileei zuzenduta dago gida hau. Hainbat arrazoigatik uste dezake batek euskal auzian giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimen gaia jorratu egin behar da eskolan. Baketik-ek hiru azpimarratzen ditu: (1) hezten duelako, (2) mundu hobea eraikitzeko, eta (3) elkartasunaren ikuspegitik jorratu behar da.

A. Hezten duelako, heziketa etikoa delako

Biktimen historiak ahalmen pedagogiko handiarekin deskribatzen ditu gertakari benetakoak, hurbilekoak..., hainbat heziketa-helburu garrantzitsuren aldeko ikaskuntza-prozesua garatzen baitu. Lehenik eta behin, sufrimendua jasaten duenarekiko enpatia eta elkartasuna sentitzeko gaitasuna gararazten die ikasleei; bigarrenik, injustiziaren aurkako zentzu kritikoa sustarazten die; hirugarrenik, kontzientzia etiko prebentiboa bultzatzen du haiengan, eta iraganeko hutsegiteak ez egiteko erreferentziak ematen

dizkie. Biktimekiko elkartasunak heziketa etikoa ematen die ikasleei.

B. Mundu hobea eraikitzen laguntzeko, bizikidetzaren berradiskidetzea lortzeko

Ikaskuntza-prozesu hau —eskolako ia guztiak bezala— mundurako prestakuntza da, mundu hobexeko eraikitze itxaropenaren prestaketa. Biktimen gainean eskolan egin beharreko lanaren xedea (zergatia), hemen eta orain, bizikidetzaren hobea prestatzea da, beren herrian berradiskidetzeari eta bakezko bizikidetzari ekarri positiboa eta aktiboa egingo dieten gizakiak hezten laguntzea.

Luzaroan injustiziak, indarkeria eta haustura sozialak edo politikoak jasan dituen geure gizarte honetako bizikidetzaren normaltzeko prozesuan txertatzen da eginkizun didaktiko hau.

C. Bihotzetik, elkartasunetik

Heziketa-modulu honen abiapuntua (elkartasunerako enpatia) ez da neutrala. Abiapuntua ez da politika, gatazka, soziologia... Afektibotasuna eta sentsibilitatea dira. Bidegabeki sufritu dute biktimek. Beraz, injustiziaren aurkako *elkartasuna* da lehen hitza. Hor hasten da modulu didaktiko honetako prozesu osoa, elkartasunaren etikaren muinean. Funtsezko ikaskuntza da. Gizaki heldu baten bizitza edo gazte baten trebakuntza ez dira osoak ez badute doakotasunaren, elkartasunaren eta altruismoaren bizipen pertsonalik izan.

Moduluaren ezaugarriak:

- Adinak: DBHko 4. maila eta Batxilergoa
- 14 jarduera, hiru gai ardatzetan banatuta: iragana, oraina eta etorkizuna
- Fotokopiatzeko prest dauden fitxak eranskin bezala

1. Helburuak

Helburu orokorra

·Baliorik gorenak giza duintasuna, elkartasuna eta, indarkeriaren aurrean, bizikidetzaren aldeko konpromiso etikoa direla irakatsi behar zaie.

Berariazko helburuak

- Iragana berrikusi egin behar da, ikuspegi kritikoarekin, giza eskubideen urraketen zergatia ezagutu dezaten (jakintza prebentiboa).
- Biktimekiko enpatia eta elkartasuna (irekia, aurreiritzirik gabea) bultzatu behar da.
- Geure ikasleen mundua humanizatzen, hobetzen eta berradiskidetzen lagundu behar dugu.

2. Garatu eta erabili beharreko funtsezko edukiak

Ikusi I Eranskina sakontzeko

Bihotzetik modulu didaktikoaren eduki didaktikoak hiru multzotan daude banatuak: iragana, oraina eta geroa. Garapenak, berriz, errazak, zorrotzak eta balio unibertsalekoak dira, ahalmen didaktiko handikoak. Eduki horiek (atal honetan laburbilduak) Bigarren Hezkuntzako 4. Mailako gazteen (15-16 urte) adinera eta hizkerara egokitu ditugu.

2.1. Iragana eta giza duintasuna

Azken hamarkadetan, geure herrian, bizikidetzari buruzko zailtasunak, eztabaidak, zatiketak, interpretazioak eta irizpideak bitarteko ez-etikoen eta ez-demokratikoen erabilerarekin nahastu eta larriagotu ziren. Ondorioa: indarkeriaren, terrorismoaren eta giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktima-zerrenda luzea (datu zehatzak azalduko ditugu).

Honegatik gertatu ziren giza eskubideen urraketa horiek: taldeen eta gizon-emakumeen arazoiketan lehentasuna eman zietelako beren ideiei, kausei edo helburuei, balio nagusia eta unibertsala den giza duintasunaren gainetik.

2.2. Oraina eta enpatia

Biktimek jasandako sufrimenduari eta injustiziari dagokionez, enpatiari lotu behar zaio oraina, hots, besteen sufrimendua geurea balitz bezala sentitzeko gaitasunari, sufrimendu horren eragileei eta ondorioei ekiteko. Hurkoaren sufrimenduekiko geure enpatia gaitasunaz ohartzeak bizitza eta giza duintasuna sakratuak direla erakusten eta sentiarazten digu.

Hezkuntzari dagokionez, biktima guztiei adierazi behar zaie elkartasuna, salbuespenik gabe. Plurala eta doakoa izan behar du elkartasunak, eta erasotzaileen zein biktimen arazoi nahiz jarrera politikoetatik aparte hedatu behar da, gizatasun- eta unibertsaltasun-pedagogia oinarritzkoa

baita, inolako sektarismorekin edo salbuespen-justifikazio-rekin bateraezina.

2.3. Geroa eta bizikidetzarako erreferentzia-esparru etikoa

Geure gatazkei ekitean, aurkariari etiketa jartzea eta etsaitzat jotzea izan da joera hedatuena. Gizaki baino lehen, deskalifikazioa da geure aurkaria. Diagnostiko horrek erabat baldintzatzen du gatazka ikusteko geure era. Muturrera eramanda, etiketaren paradigmatik etsaiaren irudia ekarri ohi du; hots, etsai-etiketa jartzen diogu aurkariari. Hain handia egiten dugu etiketa hori, ezen aurkaria ez dugun jada ikusten gizaki legez, kendu egiten diogun gizaki izaera. Geure dogmaren segurtasunaren eta hura gauzatzeko gogoaren artean ipini zaigun txorimalo modura ikusten dugu. Hortik aurrera, indarra erabiltzeko justifikatua ikusten dugu geure burua.

Indarkeria prebenitzeko eta bizikidetzeta berreraikitzeke, erreferentzia-esparru etiko bat jorratu behar du hezkuntzak. Erreferentzia-esparru horrek lau ikaskuntza esperimentzial hauek ditu oinarri: izaera mugatua, esker ona, kontzientziari entzutea eta giza duintasuna.

-Mugatuak gara, ez dugu arrazoi osoa. Besteekin bizitzea eta hitz egitea da neure ikuspegiak beti osatugabeak direla onartzea. Indarkeriaren prebentzioa zuzenki loturik dago geure izaera mugatua etengabe gogoratzen digun heziketarekin.

-Gai gara alde positiboak, batzen gaituena edo aukerak bereizteko, ikusteko edo eskertzeko. Ikaskuntza hau, beraz, indarkeria baino aukera hobea da, beti. «Zer eginik ez dago» ikuspegiari loturik ibili ohi da bitarteko ez-etikoen erabilera.

-Dogmatismo-bulkada hutsa baino zerbait gehiago izateko, hor dugu kontzientzia. Mailarik sakonean, geure kontzientziak beti du indarkeriaren ordezkotzat proposamen etikoren bat.

-Gizaki guztiok dugu giza duintasun bera, errespetatu eta sustatu beharrekoa. Ez dago ideiarik edo proiekturik duintasun horren gainetik. Norberaren kausa baino goragoko bat (giza duintasuna) aurkitzea da fanatismoaren prebentzio-txertorik onena..

II. Ariketa iradokizunak

Atal honetan, hamalau ariketa proposatzen dira, horietako batzuk osagarriak edo aukerazkoak. Batez ere tutoretzako, Etikako edo Etika eta gizarte hezkuntzako ordue-tarako daude pentsatuak, horietarako bakarrik ez badira ere. Beste ikasgai batzuetan ariketen erabilera koordinatua eta osagarria egitea litzateke egokiena. Jakina, ez dago nahitaez ariketa guztiak egin beharrik, ezta hurrenkera honetan egin beharrik ere. Kontuan izan behar dira zenbait faktore: zenbat denbora dagoen, hezitzailearen edo klaustroaren irudimena proposamena garatzeko.

Komeni da, bestalde, ikasleek koaderno batean (bakoi-tzak berean) jasotzea ikaskuntza hauetako ariketetako hausnarketa pertsonalak edo taldeko ondorioak. Ariketa

guztiak iradokizunak dira, abiapuntua, aukera ematen baitiote irakasleari bere horretan aplikatzeko edo, bestela, garatzeko, egokitze edo hobetzeko.

Laburpen koadroa

·Lehenbiziko ariketa-multzoa

·Gaia: iragana eta giza duintasuna.

·Euskarria: Pena de muerte filma.

·Ibilbidea: giza duintasunaren esanahiari buruzko galdera-sorta. Gertatutakoari buruz norberak duen ikuspegia datu errealekin alderatu. Denen artean, lehenbiziko ondorio bat atera.

·Euskarri osagarria: Hiru begiratu giza duintasunari antzerki-dinamika.

·Bigarren ariketa-multzoa

·Gaia: oraina eta enpatia.

·Euskarria: bi biktimaren idatzizko lekukotasunak.

·Ibilbidea: bi lekukotasunei buruzko galdera-sorta. Enpatiaren esanahia sakon aztertu, teorian eta praktikan. Testu bana idatzi bi biktimei.

·Euskarri osagarria: zuzeneko lekukotasunak.

·Hirugarren ariketa-multzoa

·Gaia: geroa eta erreferentzia-esparru etiko bat.

·Euskarria: hiru txanden metodoa (elkarrizketa eta entzutea jorratzeko).

·Ibilbidea: izaera mugatuaren bizipen pertsonala. Ondorioak atera, banaka eta taldeka.

·Euskarri osagarria: Antzerki partehartzailea.

1. Lehen ariketa-multzoa. Iragana eta giza duintasuna

1.1.-Pelikula: Pena de muerte.

Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENA: Dead Man Walking.

URTEA: 1995.

IRAUPENA: 120 min.

HERRIALDEA: AEB.

ZUZENDARIA: Tim Robbins.

AKTORE-ZERRENDA: Susan Sarandon, Sean Penn, Robert Prosky, Margo Martindale, Celia Weston, Raymond J. Barry, R. Lee Ermey, Scott Wilson, Jack Black.

EKOIZPENA: Polygram Filmed Entertainment

Laburpena

Helen Prejean New Orleanseko moja errukiorra heriotzaren korridorean exekuzioaren zain dagoen Mathew Poncelet hiltzaile bortitzaren aholkulari espirituala da. Mathew bezalako jendea salbazibidean jartzea da Helenen eginkizuna. Oraingo honetan, exekuzioa atzeratzea du helburu Helenek, Mathew salbatzeko eta inor hil beharrik ez dagoeladenei erakusteko.

Film honek ez du zuzeneko loturarik euskal auziarekin; bai, ordea, giza duintasunarekin eta biktimen sufrimendurekin. Jorratu nahi dugun gaia geuregandik urrutitaztertzeko aukera ematen digu, kanpoko erreferentzia batean. Horri esker, ikuspegi unibertsalagotik ekin diezaiokegu gaiari, baldintzapen gutxiagorekin. Hurrengo urratsek, berriz, geure herriko egoerara hurbilduko gaituzte. Bi hausnarketa-eremu nagusi eragingo dizkigu film honek: 1) Badu kondenatuak (etsaiak) giza duintasunik, hartaz egiten dugun epaiketa moraletik landa? 2) Salbazio-bide da heriotza zerbaitentzat edo norbaitentzat? Zerbaitetatik libratzen gaitu? Zer gurasok dute salbatzeko aukera gehien?

Filma ikusi eta gero, zer iruditu zaigu eta zer sentitu dugun eztabaidatuko dute. Gero, irakasleak galdera batzuk tartekatuko ditu, hausnarketa sustatzeko. Ez dugu saiatu behar inongo adostasunik lortzen; sentitzen duguna adierazi behar dugu.

·*Protagonistetako bat bazina, noren lekuan jarriko zinateke? Zergatik?*

·*Kondenatuak badu eskubiderik?*

·*Heriotzak salbaziorik, kontsolamendurik edo ongizaterik ekartzen dio inori?*

1.2.- Giza duintasunaren esanahian sakontzen.

Behean duzuen testuari eta harekin datozen galderei buruzko hausnarketa egingo dugu (banaka, lehenbizi; taldeka, ondoren). Kopia bat eman ikasle bakoitzari.

Ikus 1.2 fitxa

Testua banatu eta boz gora irakurri ondoren, galdera sorta beteko dute ikasleek, banaka. Ondoren, taldeka antolatu ikasleak, galdera kolektiboari buruz eztabaidatzeko.

Amaieran, elkarri azaldu talde bakoitzeko ondorioak. Desadostasunik sortzen bada, ez saiatu denek onartzen dituzten ondorioetara iristen. Idatzi eta gogoratu desadostasuna, gerora lanerako material egokia izan daiteke eta.

1.3.- Geure herrian azkeneko hamarkadetan izandako sufrimendura hurbil gaitezen..

Zer gertatu den jakin nahi dugu. Segur aski, gertatutakoaz norberak duen ustea ez dator bat biktimei eta haien sufrimenduari buruzko benetako datuekin. Saiatu alderatzen ikasle bakoitzaren ustea datuekin. Hasteko, eskatu ikasleei galdera-sorta hau betetzeko, banaka.

Ikus 1.3 – 1. Zatia fitxa

Galdera-sorta betetzen dutenean (banaka), errealitateko datuak jasotzen dituen koadroa banatu eta galderak erantzungo ditugu.

Ikus 1.3 – 2. Zatia fitxa

1.4.- Lehen ondorio baten inguruko adostasuna

Aurreko ariketan ikusi dugun guztia zergatik gertatu den jakin nahi dugu. Hipotesi bat eskainiko dugu, lehen ondorio bat ateratzeko. Hipotesi horren testua banatuko dugu.

Talde txikietan banatu ikasleak, testuaren edukia azter dezaten eta iritziak parteka ditzaten. Ondoren, elkarri azaldu emaitzak. Galdera hauek lagungarri izan dakizkiguke elkarrizketa bultzatzeko.

Ikus 1.4 fitxa

Hausnarketa hau egitean, komeni da bigarren ariketan jorratutako giza duintasunaren edukiak gogoratzea. Adostasunik baldin badago, idatzi (zegoen bezala edo beste hitz batzuekin) kartoi mehe batean. Itsatsi kartoiaren paretan, eta irakurri han jartzen duena behar den bakoitzean, hots, giza duintasunaren aurretik ezer ez dagoela gogoratu beharra dagoenean. Desadostasun handirik baldin badago, ez da hau horieki egiteko garaia: idatzi eta gorde, geroago aztertzeko.

1.5.- Ariketa osagarria. Hiru begiratu giza duintasunari antzerki-dinamika.

Lehen ariketa-multzoa amaitutakoan, ekin Hiru begiratu giza duintasunari dinamikari. Giza duintasuna hiru ikuspegitatik begiratzean datza dinamika: biktimaren, erasotzailearen eta sufritzen duenarekin bat egiten duenaren ikuspegitik.

Dinamika honetarako jarraibideak

·Hiru laguneko taldeetan banatu ikasleak: itsu bat eta bi laguntzaile. Itsuak giza duintasuna irudikatzen du: biluzik, ahul eta babesik gabe dago. Zapi edo mozturro batekin estaliko ditu begiak. Laguntzaileek, berriz, banatu egingo dituzte (isilpean) beren egitekoak: batek etsaigo-, jazarpen- eta indarkeria-harremana izango du itsuarekin; besteak, aldiz, elkartasun-, laguntasun- eta maitasun-harremana.

·Bi laguntzaileek aginduak emango dizkiote itsuari, hurrenez hurren, norberaren etsaigo- edo adiskideta-

sun-harremanaren arabera. Gorputzarekin halako mugimendu egiteko, halako esaldi edo hitz esateko, halako soinu egiteko... aginduko diote.

·Agindu-adibideak: gurutzatu besoak, begiratu gorantz, hanka bat altxatu, esan «gose naiz», txistu jo... Erraz egiteko moduko gauzak izan behar dute. Ezin zaio agindu iraingarririk eman: adiskidetasuna edo etsaigoa adierazi behar dute aginduek, eta errazak izan behar dute, arruntak. Irakasleak erne egon behar du, inongo gehiegikeriarik edo irainik izan ez dadin ariketa honetan.

·Itsuak aginduak beteko ditu eta, bere duintasuna nola tratatzen duten, asmatu behar du nork duen elkartasun- eta laguntasun-jarrerarik eta nork etsaigo- eta jazarpen-asmorik.

·Txandaka launa agindu-serie egin eta gero, aldatu egingo dituzte rola: hirukoteko beste kide batek egin behar du itsuarena, eta beste biek, isilpean, adiskide- eta etsai-rolak berenganatu behar dituzte.

·Amaieran, beste biak (laguna eta aurkaria) nola sentitu dituen azalduko du bakoitzak, eta zergatik. Denek azalduko dute beren aukera.

Ariketa honen helburua da, alde batetik, geure giza duintasunaz ohartzea, ematen zaigun adiskidetasunaren edo etsaigoaren arabera. Lagunak edo etsaiak izatea tokatzen zaigunean geure kontzientziarekin dugun harremana aztertu behar dugu, baita geure enpatia gaitasuna ere. Horra ariketaren ondorengo eztabaidarako ardatzak.

2. Bigarren ariketa-multzoa. Oraina eta enpatia

2.1- Bi lekukotasun irakurriko ditugu, zer sentimendu eragiten diguten ikusteko.

Ikus 2.1 fitxa

Oharra: testigantza ezberdinak edota ikusentzuneakoak lortzeko, Gogora Instituairekin harremanetan jarri zaitezke (http://www.gogora.euskadi.eus).

Irakurtzea eta sentitzea ditu oinarri ariketa honek. Agiri honetako 2.1 fitxako lekukotasunen fotokopia bana eman ikasleei. Boz gora eta, aldi berean, norberak bere orrian irakurriko dituzte. Denon artean egingo dute lekukotasunen irakurketa. Txandaka irakurriko dute (paragrafo bat ikasle bakoitzak). Oso geldia, ozen eta argi irakurtzeko esan.

Irakurketa-saioaren ondoren, isilune luzea egin, irakurritakoa hausnartzeko eta, batez ere, sentitzeko. Barne-entzu-

ketako saioa amaitutakoan, hitzez adieraziko du irakasleak zer sentitu duten.

Ikasleren batek adierazi nahi badu ariketan sentitu duena, une egokia da horretarako, baina ez eztabaidatzeko. Sentitze-ko eta, hala badagokio, sentitutakoa adierazteko garaia da.

2.2.- Lekukotasunen inguruko hausnarketak

Galdera-sortaz baliatuz, eskatu ikasleei idazteko zer sentiarazi dieten lekukotasun horiek. Norberak berekiko erantzun behar ditu galderak. Ariketa honetan, ez dago ez talde-lanik, ez ondorioak elkarri adierazi beharrik; hausnarketa pertsonala da. Idatziz erantzutea proposatzen dugu, isiltasunerako eta kontzientzia entzuteko denbora emanaz.

Ikus 2.2 fitxa

2.3.- Zer da enpatia?

Enpatia jorratuko dugu, hausnarketan lagungarri izango zaizkigun testu batekin eta zenbait galderarekin. Enpatia zer den jabetu behar dugu, azaleko ulermenetik landa. Izan ere, ia batere edukirik gabeko topiko bihurtu da. Besteez kezkatzeko eta arduratzeko gaitasuna da enpatia.

Hasteko, banatu hausnarketarako testua eta galderak. Utzi, horretarako, isilune bat.

Ikus 2.3 – 1. zatia fitxa

Después de la reflexión individual, dividimos la clase en grupos de cuatro o cinco personas y proponemos un trabajo en torno a los puntos siguientes. Les repartimos una fotocopia a cada alumno/a. Al terminar este trabajo, haremos una puesta en común para que cada grupo explique sus conclusiones.

Ikus 2.3 – 2. zatia fitxa

2.4.- Bi gutun idaztea.

Proposatu ikasleei bi testu labur idazteko (bana beren lekukotasuna eman diguten biktimei). Testu horretan azaldu behar dute sentitu dutena, lehen ez zekitena eta ikasi dutena eta, batez ere, biktimei, elkartasuna adierazteko, esatea gustatuko litzaiekeena.

Testuez gain edo hauen orde, marrazkiak ere egin daitezke eta ikasgelako paretetan eskegi. Gutunak alegiazkoak dira. Ez dago bidali beharrik; ikasle bakoitzak bereztat gorde ditzake. Norberarentzako gutunak dira, berez, geure sentimenduak eta hausnarketak ahalik eta zintzoen jorratzeko idatziak.

2.5.- Ekintza osagarria. Zuzeneko lekukotasunak.

Bigarren ariketa-multzo honen osagarri, biktima baten edo batzuen lekukotasuna eraman daiteke ikasgelara edo ikastetxera. Jarduera hau antolatzeko, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin, Bake eta Bizikidetzeta Idazkaritzarekin edo Gogora Institutuarekin harremanetan jartzea eskatzen du.

Era berean, terrorismoaren biktimei laguntza eskaintzen dieten elkarteekin harremanetan jar daiteke hezitzailea, ikasgelan konta dezaten biktimak babesteko egiten duten lana.

3. Hirugarren ariketa-multzoa. Etorkizuna eta bakezko bizikidetzaren oinarriak

3.1.- Elkar entzuteko, «Hiru txanden metodoa»

Denon artean eraiki behar dugu etorkizuna. Horretarako, etorkizun horretaz norberak duen ikuspegia berrikustea da lehen urratsa; bigarrena, elkar entzuten eta ulertzen ikastea, geroa partekatua izango baita. Bi atal ditu ariketa honek, eta urrats horietako bakoitzari dagozkio. Lehenbizi, testu hau banatuko dugu, banaka irakur dezaten. Etorkizunera begiratzeko ikuspegia berrikusi egin behar dugu.

Aurreko ariketetan, seguru ideia edo iritzi kontrajarriak azaldu direla, eta tentsio-uneraren bat ere izango zen, agian. Etorkizunera begiratzean sortzen diren zatiketak egoki bideratzen saiatuko gara Hiru txanden metodoarekin.

Ikasle bakoitzak —bere ikuspegitik, sortu diren desberdintasunak kontuan harturik— etorkizunerako bere iradokizunak egin behar ditu, bizikidetzeta baketsua, berradiskidetu eraikitzeko. Oso erraza da horretarako prozesua.

Hiru txanden metodoa

Entzutearen urrezko bost arauak eta Hiru txanden metodoa

1. Araua. Besteek diotena jarduna eten, ezeztatu, eztabaidatu edo erantzun gabe entzun.	Txanda guztietan
2. Araua. Besteak epaitu gabe azaldu behar dira norberaren iritzia.	Lehen txandan
3. Araua. Hobeto ulertzeko bakarrik galdetu behar da	Bigarren txandan
4. Araua. «Besteen» alderdi positiboak bakarrik adierazi behar dira.	Hirugarren txandan
5. Araua. Onena onenarekin elkartu behar da; alde bakoitzari bestearenetik hobekien iruditu zaizkion ideiak bildu behar dira.	Akta

·Lehen txanda: besteak epaitu gabe egitea azalpena (1. araua) eta erantzun gabe entzutea (2. araua). Nahi duten ikasle guztiek beren iritzia eman behar dute, labur eta besteak epaitu gabe, etorkizun hobea eraikitzeke moduari buruz. Inork ezin du eten besteen hitzaldia, ezta erantzun ere bestea hizketan ari dela.

·Bigarren txanda: ulertzeko galdetzea, aurka egin, eztabaidatu edo erantzun gabe (3. araua). Txanda honetan ere ezin dira besteen hitzaldiak eten edo eztabaidatu. Galderak egiteko edo argibideak eskatzeko bakarrik hitz egin daiteke. Azaltzen diren ideiak hobeto ulertzea izan behar dute helburu txanda horretako jardun guztiek.

·Hirugarren txanda: alde positiboak azpimarratzea (4. araua). Txanda honetan ere ezin da ez besteen iritzi-emateak eten, ez eztabaidatu. Gainerakoek esandakotik interesgarriena, iradokitzaileena edo positiboena iruditutakoa azaltzeko bakarrik hitz egin daiteke. Ohar oso garrantzitsua: irakasleak zerbait positiboa azpimarratzeko eskatu behar die ikasleei, baina ez bera bezala pentsatzen dutenek esan dutenetik, baizik eta bere ikuspegitik urrutien daudenek esandakotik (atal honetan esaten den guztia idatziz jaso behar du irakasleak).

·Akta: onena onenarekin lotzea (5. araua). Hona iritsitakoan, akta berean bildu behar dira hirugarren txandako balorazio guztiak. Paper horrek izan behar du talde horretan adostasuna eraikitzeke abiapuntu. Taldeak bat etorri behar du zerrrenda honi dagokionez.

Kartoi mehe batean idatzi akta, ikuspuntu guztiak ordenatuz, batuz eta laburtuz, «Etorkizun hobea eraikitzeke

geure hitzarmena» izenarekin. Ondoren, elkarri azaldu behar dizkiete ondorioak, horretaz hausnartzeko. Hona hemen hausnarketa sustatzeko irizpide batzuk:

·Erantzuna eta kontraerantzuna ditu ardatz ia bakarrik geure ohiko elkarrizketa-erak. Besteak entzuten eta ulertzen ez digu uzten sistema horrek. Elkarbizitzeko, lehenbizi elkar entzun eta ulertu egin behar dugu.

·Bestalde, ezin gara «bestearekin» ados jarri arrazoi osoa norberak duela uste badugu. Hiru txandetakoe elkarrizketa- eta entzute-metodo honi esker, besteek ere ekarri interesgarriak egin dezaketela ohartukogara.

3.2.- Gizakion izaera mugatuari buruzko hausnarketa, norberaren ikuspegitik.

Banakako hausnarketa-lana. Banatu ikasle bakoitzari mugatasunari buruzko hamar esaldiko testu bat, zenbait galdera eta lanerako proposamenekin batera. Ariketa honen xedea da ikasleak ohartzea norberaren izaera mugatuaz jabetzeak bizikidetzarako duen izugarritzko garrantziaz.

Ikus 3.2 fitxa

3.3.- Ondorioak

Lan osoan ikasitako ondorioak ateratzen saiatuko gara azken ariketa honetan; lehenbizi, banaka, eta, ondoren, taldean.

Banakako lanerako, egin isilune bat geure barrua entzuteko, zer ikasi dugun begiratzeko eta zer ondorio dakarren

aztertzeko. Norberak bere ondorioak atera behar ditu eta koadernoan idatzi. Hona hemen proposamen batzuk:

Ikus 3.3 fitxa

Hausnarketa pertsonalaren ostean, elkarri azaldu hausnartutakoa, geroari begira ondorio partekaturen bat ateratzeko, idazteko eta azaltzeko.

3.4.- Ariketa osagarria. Antzerki Foruma.

Antzerki parte-hartzailearen helburua da denen esku-
ra jartzea metodo pedagogiko eta gizartea ezagutzeko
eta aldatzeko tresna gisara antzerkiak duen balioa. Ikusle
pasiboa antzerki-obra batean —lehenik— eta ondoren —
agian— bere errealitatearen egile eta aktore aktibo bihurt-
zea da, nolabait, xedea.

2009 urtetik lan egiten du Baketik-ek Antzerki Foruma-
ren metodologiarekin hezkuntza esparruan, hainbat gai
landuz. 2016. urtean eta Donostiaren europar Hiriburu-
tzaren testuinguruan, Baketik-ek “Eta hik zer?” antzerki
foruma eskaini zuen, 1700 lagunengatik partaidetza izan zuena
100 saio baino gehiagotan zehar. Antzezlan honen helbu-
ru orokorra gaur egun euskal gatazka delakoaren testuin-
guruan oraindik pairatzen ditugun bizikidetzaren arazoei
aurre egiteko moduen inguruan hausnarketa pertsonal eta
kolektiboa egitea da.

Irakasleak edo ikastetxeak antzerki forumeko saio bate-
kin osatu nahi badute modulu didaktiko hau, Baketik-ekin
harremanetan jarri behar dute. Ekimen horri buruzko infor-
mazio gehiago, berriz, www.baketik.org webgunean dute.

I Eranskina

Heziketarako hiru ardatz

Hiru ardatz dituzte eduki didaktiko horiek: iragana, oraina eta geroa. Horien garapenak, berriz, errazak, trinkoak, zorrotzak eta unibertsalak dira. Sufrimendu-historia hone-tatik atera beharreko ikasbideak ez dira asko; gutxi dira, eta oso argiak. Beraz, balio handikoak dira hezkuntza-aldetik.

1. Iragana eta giza duintasunaren ikaskuntza

Azken hamarkadetan, geure herrian, bizikidetzari buruzko zailtasunak, eztabaidak, zatiketak, interpretazioak eta irizpideak bitarteko ez-etikoen eta ez-demokratikoen erabilerarekin nahastu eta larriagotu ziren. Ondorioa: indarkeriaren, terrorismoaren eta giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktima-zerrenda luzea. Ezinezkoa da, oraingoz, diagnostiko bateratua egitea, interpretazio politiko oso kontrajarriak baitaude gertatutakoaren zergatiei eta gakoei buruz. (*Diagnostiko partekaturik ez dagoela, horixe da diagnostikorik partekatuen*). Denborak, seguru asko, gertatutakoari buruz begirada eta interpretazio bateratuagoak eraikitzen lagunduko du.

Nolanahi dela ere, ez da eskolaren eginkizuna edo ardura adostasun hori eraikitzea, mundu eta gizarte hobia egiteko jendea heztea baizik. Hezkuntzaren aldetik, ahalmen didaktiko handia dute iraganeko akatsek, ikasleari injustziaren aurkako ikuspegi kriti-koa txertatzeko aukera ematen baitute, indarkeriaren erabilera inolaz ere justifikatzen ez duten balioak erre-ferentziatzen eta esperientziatzen hartuta. Adibidez, giza duintasunaren etika (baliorik gorena) ulertzeko eta ezagutzeko balio digute. Hezkuntzari dagokionez eta iraganarekin lotuta, ondorengo hiru galdereri erantzuten saiatu behar dugu. *Zer gertatu zen? Zergatik gerta-*

tu zen horrelakorik? Zer ikasi eta irakatsi behar dugu iragan horretatik?

1.1. Datu objektiboak: gertatu zena

Interpretazioetatik landa, badira zenbait datu objek-tibo eta alderagarri, eta geure herrian 1960-2010 epean gertatutakoari buruz erradiografia zorrotza eskaintzen digute. Datuok ez dira behin-betikoak, gutxi gorabehe-rakoak baizik, aldatu egiten baitira zifrak iturri batzuetatik besteetara. (*ikus 1.3, 2.zatia fitxa*).

Dena dela, baliagarri zaizkigu datu hauek epe horretako sufrimenduaren laburpena egiteko. 1.200 hildako, 6.000tik gora zauritu, 120 inguru bahitu dituen eta giza eskubideen urraketan ondorioak pairatu dituzten milaka eta milaka lagun historiarenean aurrean gaude.

Horren guztiaren ondorioz, ehundaka haur umezurtz gera-tu dira, pertsona askok ondorio fisikoak eta psikikoak dituzte muturreko indarkeria-egoerengatik, familiak suntsitu dira, bizi-tzak zapuztu... sufrimendu itzuliezina eta anonimoa bizi duten milaka istorio ditu geure herriaren historiak azken 50 urteetan.

1.2. Zergatik gertatu zen halakorik?

Lehendik esan dugunez, ez da erraza datuok adierazten dituzten izugarrikerien zergatiei buruzko adostasun sozia-

lik edo politikorik lortzea. Baina gertatu egin zen aipatu dugun guztia; giza eskubideen urraketa horiek guztiak egiazkoak dira. Datu enpiriko hori oinarri hartuta, honetan behintzat ados jar gintezke, hezkuntzaren ikuspegiari lehentasuna emanez betiere:

A. Giza eskubideen urraketa izugarri larriak egin ziren, eta biktimak eta bidegabeko sufrimendua eragin zituzten urraketa horiek.

B. Honegatik gauzatu ziren giza eskubideen urraketa horiek: taldeen eta gizon-emakumeen arazoiketan lehentasuna eman zitelako beren ideiei, kausei, helburuei edo besteei buruzko epaiketei giza duintasunaren balio nagusiaren eta unibertsalaren gainetik.

Idea bati balio absolutua emateko eta absolutu etikoa-
ren (gizakiaren bizitza eta duintasuna) gainetik ipintzeko mekanismo ideologikoa aise bereganatzen du eskubideen urraketa bideragarri eta «onargarri» egiteko bidea irekitzen du mekanismo horrek.

1.3. Zer ikasi eta irakatsi behar dugu iragan horretatik?

Aski dugu dena biltzen duen mezu, ideia, gako... bakar bati ekitea: ezer ere ez dago giza duintasunari zor zaion errespetuaren gainetik. Inongo ideia politikok, estatu-arrazoik, zapal dutako eskubideren aldarrikapenek..., ezta injustiziaren aurkako borrokak ere ez dute balio absoluturik, bizitzari eta gizakiari zor zaien errespetuaren gainetik dagoenik.

Horra zer ikasi eta irakatsi behar dugun, hezkuntzari dagokionez. Baina ikaskuntza ez da, teorikoa edo intelektuala bakarrik: norberak bizi behar du giza duintasuna. Bizipen horren bidez ikasi behar dugu injustiziaren aurkako zeinahi ahaleginen gainetik dagoela giza duintasuna.

Giza duintasunaren ikaskuntzak honakoa dakar berekin: gizaki guztiok, inongo salbuespenik gabe, giza duintasun bera dugula ikasi eta irakatsi behar dugu. Giza duintasunari esker, ez diogu elkarri begiratzen tresna hutsak bagina bezala, berezko helburu gisara baizik, hautatzeko gaitasuna dugu-eta. Errespetua zor zaigu denoi, eta eskubide berberen jabe gara guztiok. Giza duintasuna ikasteko, norberaren eta gainerako gizakien duintasun bizipenaren arteko lotura sakona ulertu behar da.

Gizakiaren alderik onena ikusteko aukera ematen digu giza duintasunak, eta haren alderdi transzendentalera eramaten gaitu; geure nortasunaren esanahi sakona ulertzen laguntzen digu, eta besteena errespetatzen irakasten. Nola jarri etsai-etiketaren edo –irudiaren aurretik gizakia-ganako errespetua gizaki bakoitzaren duintasun indibiduala ahazten badugu? Nola jarri

bakea, indarkeriarik eza, elkartasuna... beste edozein ideiarenean, kausaren edo helbururen gainetik ez badugu giza duintasunaren ikaskuntza iraunkorrik egiten?

Izan Proposamenaren (www.izanproposamena.org) eta *bizizikasi* pedagogiaren zortzi ikaskuntzetako bat da giza duintasuna. Bizikidetzari buruzko hausnarketa honi ekiteko zenbait baliabide dituzue haren dokumentazio teorikoan eta lanabes praktikoetan.

2. Oraina eta enpatiaren plusaren ikaskuntza

Iraganeko gertakariak eragin zituzten biktimak, baina haietako zenbait orainaldiaren errealtatea dira. Geure artean bizi dira, esperientzia bidegabe hark eragindako sufrimendu-zamarekin. Honenbestez, euskal gatazkan giza eskubideen urraketak eragin dituzten biktimekiko elkartasunaren hezkuntza-tratamenduak badu, hemen eta orain, zer jorratua.

2.1. Datu subjektiboak: Nola sentitzen ote dira gaur egun biktimak?

Ez da erraz erantzuteko moduko galdera. Bidegabeko arduragabekeria litzateke, seguruenik, horretan saiatzea, ez baitagokigu geuri oso pertsonalak diren egoera horien interpretazioa egitea. Saia gaitezke, dena den, biktimen lekuan ipintzen eta pentsatzen nola sentituko ginatkeen aurreko atalean azaldutako egoeretakoren bat jasatea suertatu izan balitzaigu. Nolanahi dela ere, ez da geure erantzuna balio duena, haiena baizik.

Nola sentitzen ote dira biktimak gaur egun? Ezin jakin. Baina entzun dezakegu esateko dutena. Hori da lehen urratsa, funtsezkoa. *Bihotzetik* entzun behar ditugu. Bi biktimaren zuzeneko lekukotasun bana ditugu modulu didaktiko honetan. Logikoki, desberdinak dira biak; baina biak dira irudikapen unibertsala.

2.2. Zer eskain diezaiekete biktimei eskolak eta hezkuntza-sistemak?

Sufrimenduak gizakiongan duen eraginari buruzko azterketen ondorioa hau da: oinarritzko ongizate-maila berreskuratzeko, kendu egin behar zaio oinazeari bizitzaren gidarritza, erasoak eta erasotzaileak lapurtutako burujabetza berreskuratu egin behar da. Biktimizaziotik eta biktimismo-arriskutik libratzea da lehentasuna.

Gizarteak lagundu egin behar du zeregin horretan, eta giro egokia sortu, alde batera utzirik biktimak erabiltzeko asmo oro, biktimismoa bultzatzeko nahia edo biktimak direla-eta liskarrik sortzekoa. Biktimen hiru eskubide eta premia horiei dagozkien hiru obligazio hauek bete behar ditu gizarteak: bidegabeki egindako kaltea onartzea, ordaina ematea eta iraganaren berrikuspen

kritikoa. Testuinguru orokor honetan egin behar da galdera hau: Zer eskain diezaiekete biktimei eskolak eta hezkuntza-sistemak? Aipatutako datuen arabera, hezkun-

tzaren lehentasun nagusiak hauek dira:

- A. Biktimek jasan duten bidegabekeria bihotzetik, elkartasunaren ikuspegitik, ezagutaraztea ikasleei.
- B. Sufrimenduaren ezagutza hori mundua humanizatzeko eta gerora berriro horrelakorik ez gertatzeko erabiltzea.

Bi hezkuntza-eginkizun horiei ekiteko, enpatiaren sentikortasunik sakonena sustatu behar da ikasleengan.

2.3. Zer ikasi eta irakatsi behar dugu sufrimendu horretatik?

Bat-batekotasunaren zale da oraina; horregatik, biktimen sufrimenduaren orainari begiratzean, enpatian dugu ikasi eta irakatsi behar duguna. Hurkoaren sufrimenduarekiko geure enpatia-gaitasunaz jabetzeak bizitzaren eta giza duintasunaren balio sakratuaz ohartzaren eta hura sentitzen irakasten digu. «Enpatiaren plusaren ikaskuntza» deitzen diogu horri Izan Proposamenean (www.izanproposamena.org), bestearen lekuan jartzeko metodo huts gisara ageri zaigun enpatiaren *minusari* kontrajarririk.

Berriro diogu, eta arrazoi gehiagorekin oraingoan: ez gara ulermen mentalari, arrazionalari edo arrazoituari buruz soilik ari. Norberaren bizipenetik ikas eta irakats daiteke enpatiaren *plusa*. Ikaslearen bizipen pertsonal horri esker bihurtzen da esperientzia elkartasunaren ikaskuntza sakon. Hezkuntzari gagozkiola, funtsezkoa da prozesu hori biktima guztiak (salbuespenik gabe) aintzat hartuta egitea. Plurala eta doakoa izan behar du prozesuak, eta erasotzaileen zein biktimen arrazoi nahiz jarrera politikoetatik aparte hedatu behar da, gizatasun- eta unibertsaltasun-pedagogia oinarritzkoa baita, inolako sektarismorekin edo salbuespen-justifikaziorekin bateraezina.

Enpatiaren *plusaren* ikaskuntzak gizakion elkartasun ahalmenari buruz ikastea eta irakastea eskatzen du. Besteen lekuan jartzen ikasteko teknika bat baino zerbait gehiago da enpatia: besteez arduratzea eta kezkatzea, besteen sufrimendua norberarena balitz bezala sentitzea, nolabait, haren zergatieri edo eraginei ekiteko. Berezkoa dugu enpatia (gara dezakegun gaitasuna da), eta zuzenean mintzo zaigu. Benetakotasuna eta bame-elkarrizketa behar ditu, eta lau elkartasun atxikimendu eskatzen ditu: sufritzen duenari laguntzea, berdintasunaren alde borroka egitea, justiziaren aldeko konpromisoa eta bakearen aldeko lana.

Gizaki hobeak egiten gaitu enpatiak, apaltasunaren balioa erakusten digulako; sendatu egiten gaitu, afektibotasuna ematen digulako, bizitzaren zentzua; mundua hobetu egiten du, geure mundua hobetzen duelako; eta konprometitu egiten gaitu, giza duintasunarekiko elkartasunaren humanizaziora eramaten gaituelako. Nola ulertu zer den altruismoa, elkartasuna edo errukia geure enpatia-gaitasunaz jabetu gabe? Nola eraiki mundu hobea besteen (behartsuak, baztertuak, bidegabeki tratatuak...)

istorioei begiratu gabe? Nola ulertu eta aplikatu zenbait kontzeptu (laguntza, berdintasuna, justizia, bakea, indarkeriarik eza, berradiskidetzea eta abar) enpatiaren *plusaren* esperientziarik gabe?

Izan Proposamenaren (www.izanproposamena.org) eta *bizizikasi* pedagogiaren zortzi ikaskuntzetako bat da enpatiaren *plusarena*. Elkartasunari buruzko hausnarketa honi ekiteko zenbait baliabide dituzue haren dokumentazio teorikoan eta lanabes praktikoetan.

3. Geroa eta erreferentzia etikoko esparru baten ikaskuntza

Hezkuntzaren eginkizun nagusietako bat (nagusia ez bada) mundu hobea prestatzea da. Horregatik, etorkizunari begira ere egiten da, eskolan, biktimekiko elkartasunaren tratamendua. Iraganeko alderdirik okerrenak etorkizunean ez errepikatzea nahi du gizarteak. Horretarako bitartekoak jartzen eta giroa sortzen saiatzen da eskola. Modu zehatz eta, aldi berean, orokorrean adierazita, helburua da behar diren hezkuntza-bitartekoak proposatzea gatazkei ekitean alde batera utz daitezkeen bitarteko terroristak, indarkeriazkoak, antidemokratikoak edo giza eskubideak eta giza duintasuna urratzen dituztenak.

3.1. Aurreikuspenak: hiru datu etorkizuna dela-eta

Oso gutxi dakigu etorkizunaz, eta iguripen faltsua litza-teke kontrolatzen saiatzea. Dena den, hiru gauzari buruz badugu segurtasuna, eta oraintxe bertan has gaitzke egoera horietarako prestatzen.

1. Elkarrekin biziko gara. Elkarrekin bizi izan gara, hala bizi gara eta, gerora, gutariko gehien-gehienek ere elkarrekin jarraituko dugu. Herrialde eta gizarte bereko partaideak gara; ontzi berean goaz. Eta denok gaude mundu berean.
2. Gatazkak izango ditugu. Desberdinak izan gara, gara, eta izango gara. Desberdin ikusten ditugu mundua eta bizikidetzak. Dударik gabe, liskarrak, desadostasunak eta gatazka berriak izango ditugu geure bizikidetzan.

3. Elkarrekin bizitzen jarraitu beharko dugu. Hobeto biziko eta elkarbiziko gara geure desadostasunak bakean, elkarriketa bidez eta era konstruktiboan kudeatzen baditugu. Bitarteko ez-etikoak, suntsitzailak edo indarkeriazkoak erabiltzen baditugu, aldiz, okerrago biziko eta elkarbiziko gara, maila indibidualan zein kolektiboan.

Etorkizunari begiratzean, beraz, bereizi egin behar da zer den garrantzizkoa eta zer ez: garrantzizkoena, geroari begira, berradiskidetzea da, bizikidetzak berreraikitzea. Gaur egun, berriz, bakezko bizikidetzak ikastea da. Horretarako, geure gatazkak gizalegez konpontzen ikasi behar dugu, errespetuz, elkar onartuz, inor bazterrerik utzi gabe, ikuspegi demokratikoz...

3.2. Abiapuntu nagusia

Egia eta arrazoi absolutuaren jabe delakoan dagoenaren ustea da dogmatismoa. Ideia, kausa, helburu edo borroka bati balio absolutua edo handi goa ematea dakar dogmatismoak, eta jokabide fanatikoen eta indarkeriazkoen ezinbesteko oinarria da. Arrazoi osoa duelakoan dago dogmatikoa, inongo zalantzarik gabe. Segurtasun horrek dakarren itsukeriak hilketak ere justifika ditzake, kontzientzia onarekin gainera (hasieran). Gizakiaren eta haren giza duintasunaren gainetik ipintzen du dogmatismoak dogmaren balioa.

Badu hezkuntzak baliabide garrantzizko bat etorkizunari begiratu eta ideia edo status jakin bat inposatzean,

galaraztean edo aldarrikatzean edonolako dogmatismoak, fanatismoak, indarkeriak edo bitarteko ez-etikoen erabilerak saihesteko. Gizakion izaera mugatuaren norberaren bizipenaz ari gara. Inor ez da egia edo arrazoi absolutuaren jabe. Beti da partziala eta osatu gabea zerbaitez dugun ezagutza, gauza handietan zein txikietan. Izan ere, muga-tuak gara gizakiok.

Elkarrizketa da geure ikuspegiak beti osatugabeak direla onartzea, mugatuak gara-eta. Horregatik, indarkeriak oinarri duen dogmatismoaren alternatiba elkarrizketak oinarri duen zalantza da. Izaera mugatua ez da formulazio teorikoa; gizaki guztion esperientzia da, egunero aurkitzen duguna.

Hezkuntzaren ikuspegitik, norberaren izaera mugatuaren bizipena du oinarritzako abiapuntu bakezko bizikidetzak, geure arteko gatazkak gizalegez, errespetuz, elkar onartuz, inor baztertu gabe eta ikuspegi demokratikoz konpontzeko. Indarkeria prebenitzeko eta bizikidetzak bultzatzeko oinarritzako pedagogia da geure izaera mugatuaz ohartzea eta hura onartzea..

3.3. Etorkizunari begira, zer ikasi eta zer irakatsi behar dugu?

Arrazoimena dugunetik hil arte, besteekiko etengabea harremanean bizi gara. Harremana garen aldetik, berriz, gatazka ere bagara. Bestalde, batzen eta bereizten gaituen guztiarekin bizi, elkarbizi eta hezi behar dugu. Geure bizitzako protagonista nagusietako bat da gatazka. Geure gatazkarik larrienak eta konplexuenak jorratzean, aurkariari etiketa jartzea eta etsaitzat jotzea izan da joera hedatua. Etiketa bihurtzen dugu aurkaria. Gizakia baino lehen, aurreiritzi, deskalifikazio edo uste jakin baten emaitza da. Abiapuntu edo diagnostiko horrek erabat baldintzatzen du gatazka ikusteko eta ulertzeko geure era.

Muturrera eramanda, etiketaren paradigmak etsaiaren irudia ekarri ohi du; hots, etsai-etiketa jartzen diogu aurkariari. Horren handia egiten dugu etiketa hori, ezen aurkaria ez dugu jada ikusten gizaki legez, kendu egiten diogu gizaki izaera. Geure dogmaren segurtasunaren eta hura gauzatzeko gogoaren artean ipini zaigun txorimalo modura ikusten dugu. Hortik aurrera, indarra edo indarkeria erabiltzeko, giza eskubideak urratzeko justifikatuta ikusten dugu geure burua. Etiketaren paradigmak, horrela, gatazka suntsitzailearen bidea irekia du.

Hezkuntzaren eginkizuna da etiketaren paradigma eta etsai-irudia gairatzeko erreferentzia-esparru etikoa sendotzea. Erreferentzia-esparru horrek lau ikaskuntza esperientzia hauek ditu oinarri: izaera mugatua, esker ona,

kontzientziari entzutea eta giza duintasuna. Horietako bi (lehen eta azkena) azaldu zaizkigu jada atal honetan. Izan Proposamenaren eta *bizizikasi* pedagogiaren oinarritzako lau ikaskuntzak dira. Beste laurak ere (elkarrizketaren *plusa*, enpatiaren *plusa*, pazientziaren *plusa* eta maitasuna) baliagarriak eta egokiak dira.

Dena den, lehenbiziko laurak (oinarritzako ikaskuntzak) oinarri sendoa dira edonolako dogmatismo, fanatismo edo indarkeria-mota prebenitzeko. Kontzientzia etiko prebentiboa sustatzen dute ikasleengan, etorkizunean iraganeko akatsak errepikatu ez ditzaten. Lau arrazoi hauek, gutxienik, bultzatzen dute fanatismoa; horren prebentzioak, beraz, hezkuntza-jarduera zehatz batzuk eskatzen ditu:

- Gizakion mugez behar adinako kontzientziarik ez izatea. Pertsonaren bat edozer egiteko prest baldin badago sinesmen edo ideia batengatik (baita jendea hiltzeko ere), egia absolutu baten jabe sentitzen delako da, hau da, mugatua dela eta arrazoi osoaren jabe ezin duela izan ahaztu baldin badu. Fanatismoaren prebentzioan, garrantzi handia du gizakiak mugatuak garela gogoratzen duen heziketak, muga hori gizakion alderdi berariazkoa eta unibertetsala dioena.
- Alderdi onak bereizteko, balioesteko eta eskertzeko ezintasuna. «Ez dago zer eginik» diagnostikoaren ondorio izan ohi dira muturreko bitartekoak eta jokabideak. «Ez dago beste biderik»; «ez dago nahi dudana lortzeko beste modurik, suntsipenezko bitartekoekin ez bada». Fanatismoa prebenitzeko, ezinbestekoa da bizitzako, gatazketako eta zailtasunetako alderdi onak eta positiboak bereizten, balioesten eta eskertzen jakitea. Aukerak bilatzen ikasten badugu, asmatuko dugu geure kausaren alde borrokatzen jarraitzeko bitarteko etikorik eta gizalegezkorik.
- Geure kontzientzia arinkiaz entzuteko ohitura. Pato-logiaren bat salbu, geure kontzientziak betiizaten du eskura, mailarik sakonenean, proposamen bidezkoen eta etikoren bat. Arazoa da kontzientziari kasu gutxi egiten diogula, edo batere ez, edo gaizki entzuten dugula hark dioena. Mailarik azalekoenetako erantzunekin konformatzen gara. Maila horietan dago geure kausa edo taldearekiko leialtasun-kontzientzia, besteak beste. Ez dugu sakonago jotzen kontzientzia, eta geure nahierara moldatzen dugu ondorioa, kontzientzia garbiarekin jarduteko moduan izateko. Kontzientziaren azaleko mailak bakarrik entzutek

datoz jokabide fanatikoak eta, horiek prebenitzeko, kontzientziaren maila sakonagoetara jo behar da, eta zintzo entzun hark dioena.

•Giza duintasuna gutxiestea. Fanatismoak ahaztu egiten du gizakia berez dela helburu, aukeratzeko gaitasuna duela, eskubide-subjektu dela, ez dela tresna edo bitarteko hutsa. Bere sinestearen, helburuaren, kausaren edo ideia-aren mende jartzen du fanatismoak gizakiaren balioa. Horregatik, giza duintasunari buruzko etikan inbertsio handia egin beharra dago fanatismoa prebenitzeko. Bere kausa baino gorago-

ko beste bat aurkitzen duenak bakarrik gaindi dezake fanatismoa. Giza duintasunaren kausaz ari gara, gizakion proiektu nagusia geure bizitza sozialean eta komunitarioan. Fanatismoa prebenitzeko, geure giza duintasunean besteena ikusten ikasi behar dugu, eta bat-egite sakon horretan aurkitu gizakiaren baliorik gorena eta traszendentea, ororen gainetik eta aurretik dagoena.

Laburbilduz, dogmatismoaren, fanatismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen prebentzioak erreferentzia-esparru etikoak behar ditu. Lau puntu hauetan

Laburpen-koadroa

<p>A. Iragana eta giza duintasuna</p>	<p>•Zer geratu zen? 1960 eta 2010 bitartean, bizikidetz-politikoaren arazoak indarkeriaren, terrorismoaren eta giza eskubideen urraketen erabilerarekin nahastu eta larriagotu ziren. Ondorioa: biktimen eta sufrimenduen zerrenda luzea eta mingarria.</p> <p>•Zergatik geratu zen? Hau gertatu ahal izan zen taldeen eta gizon-emakumeen arrazoiketan beren ideiei edo besteei buruzko epaiketegi lehentasuna eman zirelako giza duintasunaren balio nagusiaren eta unibertsalaren gainetik.</p> <p>•Zer ikas dezakegu? Inongo ideia politikok, estatu-arrazoik, zapalduetako eskubideren aldarrikapenek..., ezta injustiziaren aurkako borroka ere ez dute balio absoluturik, bizitzari eta gizakiari zor zaien errespetuaren gainetik dagoenik.</p>
<p>B. Oraina eta enpatia</p>	<p>•Nola sentitzen ote dira gaur egun biktimak? Ezin jakin. Baina entzun dezakegu esateko dutena. Hori da lehen urratsa, funtsezkoa. <i>Bihotzetik</i> entzun behar ditugu. Bi biktimaren zuzeneko lekukotasun bana ditugu.</p> <p>•Zer egin dezakegu eskolatik? Ikasleengan konpromisoa eta enpatia sakonena susta dezakegu bi helbururekin: -Biktimiek jasan duten bidegabekeria bihotzetik, elkartasunaren ikuspegitik, ezagutzea. -Sufrimenduaren ezagutza hori mundua humanizatzeko eta gerora berriro horrelakorik ez gertatzeko erabiltzea.</p> <p>•Zer ikas dezakegu? Besteez arduratzea eta kezkatzea da enpatia, besteen sufrimendua norberarena balitz bezala sentitzea, nolabait, haren zergatiei edo eraginei ekiteko. Bizitzaren eta giza duintasunaren balio sakratuaz ohartzen eta hura sentitzen irakasten digu. Elkartasuna biktima guztiei heldu behar zaie. Gizatasun- eta unibertsaltasun-pedagogia oinarritzakoa da, inolako sektarismorekin edo salbuespen-justifikazioarekin bateraezina..</p>

<p>C. Geroa eta eta erreferentzia etikoko esparrua</p>	<p>•Aurreikuspenak: hiru datu etorkizuna dela-eta.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Elkarrekin biziko gara. 2. Gatazkak izango ditugu. 3. Elkarrekin bizitzen jarraitu beharko dugu. <p>•Abiapuntu nagusia.</p> <p>Gizakion izaera mugatuaren norberaren bizipena. Inor ez da egia edo arrazoi absolutuaren jabe. Izan ere, mugatuak gara gizakiok.</p> <p>•Zer ikas dezakegu?</p> <p>Indarkeria prebenitzeko eta bizikidetzak baketsua eta berradiskidetzak bultzatzeko erreferentzia esparru etikoa behar dugu. Esparru horretarako lau oinarri edo erreferentzia ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Mugatuak gara, ez dugu arrazoi osoa. Besteekin bizitzea eta elkarrizketatzea da neure ikuspegiak beti osatugabeak direla onartzea. -Alde positiboak bereizteko gaitasunak erakusten digu indarkeria baino aukera hobea dela beti elkarrizketa. -Dogmatismo-bulkada hutsa baino zerbait gehiago izateko, hor dugu kontzientzia. -Norberaren kausa baino goragoko bat (giza duintasuna) aurkitzea da indarkeriaren prebentzio-txertorik onena.
--	---

laburbil daitezke erreferentzia horren ardatzak, ikasi eta irakatsi behar duguna:

- Mugatuak gara, ez dugu arrazoi osoa. Besteekin bizitzea eta elkarrizketatzea da neure ikuspegiak beti osatugabeak direla onartzea. Indarkeriaren prebentzioa zuzenki loturik dago geure izaera mugatua etengabe gogoratzen digun heziketarekin.
- Gai gara alde positiboak, batzen gaituena edo aukerak bereizteko, ikusteko edota eskertzeko. Ikaskuntza hau, beraz, indarkeria baino aukera hobea da, beti. «Zer eginik ez dago» ikuspegiari loturik ibili ohi da bitarteko ez-etikoen erabilera.
- Dogmatismo-bulkada hutsa baino zerbait gehiago izateko, hor dugu kontzientzia. Mailarik sakonenean,

geure kontzientziak beti du indarkeriaren ordeko proposamenetik bat.


- Gizaki guztiok dugu giza duintasun bera, errespetatu eta sustatu beharrekoa. Ez dago ideiarik edo proiekturik duintasun horren gainetik. Norberaren kausa baino goragoko bat (giza duintasuna) aurkitzea da fanatismoaren prebentzio-txertorik onena.

Izan Proposamenaren (www.izanproposamena.org) eta *bizizikasi* pedagogiaren zortzi ikaskuntzetakoak dira oinarriko lau ikaskuntza hauek. Zenbait baliabide dituzue, haren dokumentazio teorikoan eta tresna praktikoetan, honen botere hezitzailean sakontzeko.

Modulu didaktikoa

bihotzetik

Eskolan euskal auzian izandako
giza eskubideen urraketen biktimekiko
elkartasuna lantzeko proposamena



Fitxak

1.2 Fitxa

Giza duintasuna

·Gizaki guztion funts erkidea dugu giza duintasuna, tresna huts gisara tratatu beharrean berezko helburu modura begiratzen elkar bultzatzen gaituena. Helburu garenaz, errespetua zor zaigu, eta eskubide berberen jabe gara denok. Giza duintasuna errespetatzea, babestea eta sustatzea da etikaren funtsa.

·Besteari geure barrua irekitzea dakar giza duintasunaren ikaskuntzak, harengan geure izatearen zati bat ikustea, geuk bezala sufritzen, gozaten, beldurtzen, barre egiten, maitatzen eta amets egiten duela ohartzea. Giza duintasuna zer den ikasteko, geure zati bat bestearengandagoela eta harenaren zati bat geuregan ulertu behar dugu. Partekatzen dugun zati hori da giza duintasuna.

·Egoismo-bulkada hutsa baino zerbait gehiago izatea hautatzeko gaitasuna daukagulako dugu giza duintasuna. Solidario izatea hauta dezakegu, adibidez. Geure elkartasun-, elkarrizketa-, barkamen-, berradiskidetze- edo maitasun-gaitasunak egiten gaitu duintasunaren jabe. Ondorio hauek dakartza giza duintasuna onartzeak:

-Giza duintasuna sustatzeko eta aldarrikatzeko, bestea errespetatu egin behar da.

-Bestea errespetatzeko, funtsezkoa da behin betiko ez epaitzea.

-«Norberak berea eta kito» ikuspegia ez du onartzen giza duintasunaren kausak, eta bihotzetik bilatzen du bestearen bihotza.

-Besteen sufrimenduari edo injustiziarik ez ikusiarena ez egitea eskatzen du, eta konpromiso jakin batzuk onartzea.

1.2 Fitxa

Norberak hausnartzeko galderak

·Gizon eta emakume guztien berdina sentitzen naiz, salbuespenik gabe?

·Bestea neu bezalakoa da, haren sufrimenduak neuri ere eragiten didala ohartzen naiz?

·Begira dezagun geure barrura: Beste pertsona batzuk behin betiko epaitu edo etiketatu ditut inoiz, «hori halakoa da» esanez?

·Giza duintasunik merezi ez duen pertsonarik dagoela uste dut?

·Besteek behin betiko epaitua edo etiketatua sentitu naiz inoiz?

·Besteari erabat itxi dizkiot inoiz neure ateak, eta harengandik datorren guztiari uko egin diot?

·«Norberak berea, eta kito» jarrerarekin bat egin dut inoiz?

·Testuarekin bat baldin banator, zertara konprometitzen nau? Ados ez banago, berriz, zer esan nahi du? Zergatik?

Taldeka hausnartzeko galdera bat

·Pertsona guztiek (salbuespenik gabe) giza duintasun bera dutela eta errespetatu egin behar dela uste dugu? Hala ez bada, zergatik ez? Hala bada, zer eskatzen du horrek?

1.3 Fitxa

1. zatia

Gertatutakoaz norberak duen irudia

·Geure herrian azken hamarkada hauetan zatiketa politikoaren eta indarkeriaren nahasketek eragindako biktimei eta giza eskubideen urraketei buruzko lan bat egiten ari gara. Erantzun galdera hauei. (Zuretzat dira erantzunak. Ez daukazu galdera-sorta inori eman beharrik edo erantzunak besteentzat irakurri beharrik).

·Indarkeriari, terrorismoari eta giza eskubideen urraketei dagokienez, zer gertatu da urte hauetan geure herrian, zeure ustez?

·Zenbat hildako izan direla esango zenuke, gutxi gorabehera?

·Badakizu zein izan diren hiltzaileak?

·Zeure ustez, zein izan dira biktimak?

·Homizidioez eta hilketez gain, giza eskubideen zer beste urraketa izan dira?

·Gogoratzen dituzun indarkeriazko gertakari batzuen zerrenda egingo zenuke?

2. zatia

Giza eskubideen zapalketen laburpen-etaula

	1960-1975	1976-1978	1979-1982	1983-2013	1960tik 2013ra Guztizko zenbatekoa
ETA, ETA(pm), ETA(m), ETA VII, ETA VIII, CCAA, DRIL, IK, Iraultza eta beste batzuk					
Hildakoak					837
- Atentatueta	24	99	244	444	811
- Bahitu eta hildakoak	-	2	8	5	15
- Oraindik desagertuta daudenak	3	-	-	-	3
- Hilotz agertu direnak	2	-	-	-	2
- Kale borrokagatik	-	-	-	2	2
- Beste batzuk	1	1	-	2	4
Zaurituak					2.365-2.600
- Atentatueta	103	132	347	1597	2179
- Bahitu eta zangoan tiroa(k) emanda	-	3	12	-	15
- Bahitu eta askatuak	3	6	18	14	41
- Bahitu eta Estatuko Segurtasun Indarrek askatuak	-	-	2	4	6
- Ibilgailua lapurtzeko bahituak	?	8	44	45	97
- Kale borrokagatik					27
Beste datu batzuk					
- Atentatu kopurua					3.600 inguru
- Ekonomikoki estortsionatuak					Pertsonak milakotan
- Bizkartzaindunak					1.500 a 2.000
- Kale borrokako ekintza kopurua					4.500 inguru
Segurtasun Indarrak					
Hildakoak					94
- Poliziaren zaintzapean	3	-	3	3	9
- Poliziaren kontrolan edo antzekoetan	9	5	6	-	20
- Nahasteen, abusuen eta bestelako onorioz	7	3	5	2	17
- Polizien istiluak zerbitzutik kanpo	1	4	7	4	16
- Manifestazio eta mobilizazioetan	4	18	3	5	30
- Heriotza-zigorren onorioz	2				2
Zaurituak					746
- Poliziaren kontrolan	6	15	17	9	47
- Nahasteen, abusuen eta bestelako onorioz	3	14	7	16	40
- Polizien istiluak zerbitzutik kanpo	1	4	4	9	18
- Zauri larriak manifestazioetan	71	351	40	179	641
Beste datu batzuk					
- Tortura					Ez dago datu nahikorik. 5.500 salaketa publiko
Talde parapolizialak eta eskuin-muturreko taldeak					
Hildakoak					73
- Atentatu eta erasoetan	2	3	28	28	61
- Mobilizazioetan	-	3	-	-	3
- Bahitu ostean	-	-	2	2	4
- Oraindik desagertuta daudenak	-	1	1	1	3
- Bortxatu eta hildako emakumeak	-	-	2	-	2
Zaurituak					426
- Atentatu edo erasoetan	16	87	119	101	323
- Manifestazio eta mobilizazioetan	?	22	8	2	32
- Bortxatutako emakumeak	-	?	12	1	13
- Bahituak (Galdekatuak, kolpatuak eta mehatxatuak)	3	6	12	37	58
Beste datu batzuk					
- Ondasunen aurkako atentatuak edota heriotza-mehatxuekin	138	217	204	394	953

Iturria: Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketari buruzko oinarritzko txostena (1960-2013), Eusko Jaurlaritzak, 2013

1.3 Fitxa

Beste zenbait datu geure herriak jasan duen sufrimendua ulertzen laguntzeko

Fitxa honetan adierazten diren kasuak, zorrozki giza eskubideen urraketak ez badira ere, modu batera edo bestera aurreko fitxarekin harremana duten sufrimendu larrien istorioak dira. Enpatia errealitate horiekiko sentikorra da, halaber.

·200 lagun inguru hil dira beste egoera batzuetan. Nork bere buruaz beste egindako poliziak eta ETAko kideak, polizia-talde desberdinen arteko heriotza eragin duten ustekabeko tiroak, eta istiluetan, segadetan, erabiltzen ari ziren lehergailuengatik, deskarga elektrikoengatik eta abarreatatik hildakoak.

·50 urte hauetan, 5.000 inguru familiek izan dute senideren bat kartzelan. Azken bi hamarkadetan, preso zeuden pertsona gehienei sakabanaketako espetxe-politika ezarri zaie. Espetxetako bidaietan hainbat lagun hil dira trafiko-istripuetan. Gesto por la paz eta Elkarri/Lokarri bezalako giza eskubideen aldeko erakunde bakezaleek adierazi zuten sakabanaketa-politika familiei egokitzen zaien zigor gehigarria.

Galderak:

·Zeuen ustez, biktimen eta giza eskubideen urraketan kopuruak horiek ziren?

·Zerk harritu zaituzte gehien? Zer egin zaizue mingarrien?

1.4 Fitxa

Zergatik izan ziren giza eskubideen urraketak?

Zenbait jendek edo taldek beren ideiak (*) balio gorena eta unibertsala den giza duintasunaren gainetik jarri zituztelako egin ziren indarkeria- edo terrorismo-ekintzak eta giza eskubideen urraketak.

·Zer esan nahi du paragrafo honek? Zer lotura dauka geure herrian gertatutakoarekin? Ados gaude haren edukiarekin?

·Erraz ahazten zaigu «bestea», «etsaia» gizakia dela, duintasuna duela? Batzuetan garrantzi handiagoa ematen diogu ideia edo etiketa bati gizakiari zor zaion errespetuari baino?

·Egia al da pertsona baten giza duintasuna gutxiesteak edo mespretxatzeak atea zabalik uzten diola haren giza eskubideen urraketari?

(*)«Ideiak» hitzarekin iritziak, borroka-kausak, norberaren helburuak edo «besteekiko» gutxiespen- edo mespretxu-epaiak adierazten ditugu. Ikuspegi horietatik edozein giza duintasunari baino balio handiagoa ematean datza indarkeriazko portaeraren jatorria. Giza duintasunak edozein ikuspegi partikularrek baino gehiago balio du.

2.1 Fitxa

Lehen lekukotasuna.

ETAk hildako pertsona baten anaiarena

837 lagun hil dituzte ETAko adar guztiek eta Komando Autonomo Antikapitalistek (KAA) 3.600 atentatutan. Hildakoez gain, 3.500 eta 5.500 arteko zauritu-kopurua eragin dute atentatuek, eta kalte material zenbatezinak. 84 lagun bahitu dituzte aipatutako taldeek, eta haietatik 11 hil. Bestalde, 2.000 lagun baino gehiagok zaindariekin bizi behar izan dute azken urteotan, mehatxatuak egon direlako.

Ramón Bagliettok altzari-denda bat zuen, eta UCD-ko zinegotzia zen Azkoitian. 1980ko maiatzaren 12an, etxera beribilez zihoala, ETA-ko kideek hil zuten. Elgoibarko irteeran haren beribila metrailatu zuten.

Pedro Bagliettoren lekukotasuna

1980ko maiatzaren 12an anaia galdu nuen...

Anaiaren aurkako atentatua gertatu zenean neu Madrilen bizi nintzen, jada. Familiak zuen negozioaren beste adar bat zabaltzeko joan nintzen bertara. Edo nik edo Ramonek joan behar genuen, eta berak zera esaten zidan: «nahiago dut sorlekuan gosez hiltzea, hara joatea eta dirudun egitea baino». Beno, handik 400 kilometroko bidea egin behar nuen anaiaren gorpua zegoen lekura heltzeko, Azkoitira, alegia. Gogo-aldarte guztiak izan nituen. Lehen bulkada mendekua bilatzera bultzatzen zaituen animalia-senarena da. «Metraileta hartuko dut, eta hau eta bestea, eta beste hori ere garbituko ditut. Han denek ezagutzen dugu elkar». Baina, azkenean, arrazoiaren erabilera nagusitzen da, hori ere barru-barrukoa baitugu, eta asmoa bertan behera uzten duzu. Irudizko metraileta hark jasotakoa baino min handiagoa sorraziko luke-eta. Azkoitira heldu nintzenean, anaia-arrebok bat egin genuen negarrez besarkada batean, eta errepikatzen genuen behin eta berriro: «Barkatu beharra daukagu, barkatu beharra daukagu!». Jarrera hori ez da nahitaezkoa, ezagutzen ditut «ez dut ahaztuko, ezta barkatuko ere» dioten lagunak.

18 urte lehenago, Azkoitin genuen negozio familiarreko atean zegoela, anaiak ama bat ikusi zuen haur bat besoetik helduta eta beste bat besoetan zuela. Aurrenekoak ihes egin zion pilota zeraman, eta kamioi bat zetorren une berean atera zen bidera bere bila. Amak, senari jarraiki, hura babesteko salto egin zuen bere atzetik. Anaiak haurra besoetatik kendu ahal izan zion amari, eta ama-semearen heriotza, bertatik bertara, ikusi zuen. Istorio honen alderdi lazgarriena zera da: anaia hil zuena egun hartan besoetan hartu zuen haur horixe izan zela.

Hasiera batean, lagun min batzuen falta igartzen duzu. Askok ematen dizkizute doluminak, baina zenbait gertuko, ezagun eta senitarteko ere faltan dituzu. Ez agertzeak harritzen zaitu, eta ihes egiten dizutela konturatzeko zara. Biktimak bakarrik ez, izurridunak ere bagara. Izurridunak, eta haiek alden du egiten zirenean, ihes egin ziguten. Garai hartan biktimei, ia-ia, klandestinitatean eman behar izaten zitzaaien lur; ez zegoen elkartasun-agerpenik, ez ezer. Zenbait lehengusu-lehengusinek ez zuten ez adorerik, ez bihotzik erakutsi, eta ez ziren enpatiak bultzatuta ere gerturatu. Hori ere ez.

Horrez gain, «zergatik hil zuten?» galdetzen dizute. Hau da, «zer egin ote du?». Ez dago inor hiltzeko arrazoirik. Ez esan, orain, hemen heriotza-zigorra onargarria denik. Onargarria da edozeinentzat? Guardia zibil batentzat, faxista batentzat, kale-borrokan aritzen den batentzat, zeure anaiarentzat? Zeuk bezala pentsatzen ez duelako bakarrik?

2.1 Fitxa

«Zergatik hil zuten?». Galdera itsusia iruditzen zitzaidan.

Neure ustez, galdera, ez dakit, errealena beste hau da: «zer gertatzen ari zaigu euskaldunoi horrela elkar hiltzeko?». Batek bizitza salbatzen dizu, eta beste batean zeuk kentzen diozu hari berea? Zer gertatzen ari zaigu euskaldunoi gizabanako baten sufrimenduaren aurrean enpatiarik erakutsi ezin dezagun? Zer gertatzen ari zaigu doluaren aurrean elkartasunik senti ezin dezagun? Baina ulergarria zait pertsona batentzat biktima batekin topo egitea konpromisoa dela. Ez dute asmatzen ezer esaten, eta ez dakite zer egin zeurekin. Zuk zeuk, gobernatu behar izaten duzu, normalean, elkarrizketa, eta hori izugarria da.

Ulertzen ez, baina barkatzen ditudan gauza asko daude. Egunen batean, aurrez aurre, anaiaren hiltzailea aurkituko banu zera esango nioke: «Kaixo, Ramonen anaia naiz, zeuk hil zenuena, baina nik ez zaitut hilko, lasai. Zeu, legeari esker, legitimoki zaude kalean. Lasai, ez zaitut hilko».

Arimako zenbait indarrek kanpora bultzatzen zaituzte, ekitera, optimismora. Beste batzuek, ordea, kikiltzen zaituzte, geldirik egotera behartzen eta ezkortasunera eramaten. Bien artean nabil, eta batzuetan, jakina, argia falta izaten zait...

Anaia gaztea izugarri botatzen dut faltan. Gizon normala zen, arrunta. Gainontzeko guztian ezin okerrago aritu zen eskolan, marrazketan izan ezik. Ez zen batere trebea ikasketetan. Gazte-garaian nahiago zuen mendian kuadrillarekin egotea edota herrietako festetara joatea. Euskaldun peto-pettoa zen, bere herriarekin, paisaiekin, txikiteoarekin eta familiarekin liluratua zegoena. Bi ilobak aitarik gabe utzi zituzten. Eta Maria Pilar bere beste erdia gabe.

Neure baitako zati izugarria kendu zidaten. Gauza bera ginen...

Jakina galdetu izan diodala neure buruari haren patua aldatu ahal izan ote genuen. Ramonek segika ari zitzaizkiolako susmoa zuela esan zidan. Emazteari esan zion, eta baita lagun batzuei ere. Ohartarazten genion, baina ez dakit... Ez zuen inoiz pentsatu horren urrun helduko zenik... Nork pentsatuko zuen, ezta? Baina, jakina, beti gelditzen zaizkizu zalantzak. Ez dakit.

2.1 Fitxa

Bigarren lekukotasuna. GAlek hildako pertsona baten arrebarena

GAL erakundeak 28 lagun hil zituen, ehun bat zauritu eta lau bahitu/desagerrarazi. Eskuin muturreko taldeek, poliziaren eta estatuaren ingurukoek (BVE, ATE...) eta giza eskubideak urratu zituzten polizia-ekintzek, berriz, beste 150 hildako eragin zituzten.

Joxean Lasa eta Joxi Zabala, Tolosako gazteak, GAlek bahitu zituen 1983ko urriaren 16an Baionan. 1985ean aurkitu zituzten Alacanteko Busot herrian, baina ez zituzten 1995. urtea arte identifikatu. Haien gorpuak kare bizitan lurperatu zituzten, eta tiroak eta tortura-seinaleak zeuzkaten

Arantxa Lasaren lekukotasuna

1983ko urriaren 16an, astelehena, anaia desagertu zen Baionan.

Neuk 17 urte nituenean eta Joxeanek 18, bera eta Joxi, bere laguna, Iparraldera joan ziren bizitzera polizia atzetik antzematen zutelako. Ondoren, polizia bi aldiz etorri zen etxera, gauez, eta izugarritzko zarata eta oihuak eginez. Lehenengo aldian hiru ahizpa eraman gintuzten komisariarako sotoetara. Hiru egun igaro genituen han, bakoitza bere zuloan, beldurrez, ezer jakin gabe, mehatxu eta kolpe artean, izugarritzko tentsiopean.

Bi urte geroago desagertu ziren, 20 eta 21 urterekin. Inork ez zekien ezer. Hasieratik susmatu nuen poliziek hartu zituztela eta berriro ikusteko itxaropenik ez nuen izan. Beste anaia-arreba batzuek, ordea, itxaropena mantendu zuten, neuk ez.

Baionako polizia-buruengana jo genuen gertatutakoa salatzeraz, baina auziak ez omen zuen beraiekin zer ikusirik eta ez ziguten kasurik egin. Eusko Jaurlaritzara, hemengo polizia-buruengana jo genuen... baina ezin omen zuen inork ezer egin. Bakarrik eta salduta sentitu ginen. Ingurukoek babesa genuen, gurekin zeuden.

Gorpuak Iparraldeko baso batean zeudelako zurrumurrua zabaldu zen... eta hara joan ginen 50 inguru lagun basoa arakatzera, baina ezer ez.

Ingurukoek, herriak, asko lagundu ziguten.

Komisarian geundenean, neure eskolak greba egin zuen, irten ginenean, kalean gelditzen ninduten haien elkartasuna adierazteko. Desagertu zirenean, manifestazioak egin ziren, greba eguna... bakarrik ez geundela bagenekien, baina ez genekien beste ezer eta ni paralizatzen hasi nintzen, neure barruan sartzen hasi nintzen. Zerbait egin beharra nuen ez erortzeko eta ez nintzen gelditzen, ezin nintzen gelditu, ezta eskaintakoa hartzeko ere, saihestu egiten nuen.

Etxean, beldurrez eta tentsiopean bizi ginen. Momentu batean anaiari buruz hitz egiteari utzi genion. Indartsu egon behar genuen bizitzari aurre egiten jarraitzeko.

Lagunartea bitan banatu zen batetik, manifestazioetara joaten ginenak eta bestetik politikarekin zer ikusirik izan nahi ez zutenak. Eta, neu? Gero eta isilago; ezin nien kontatu gertatzen zitzaidana, sentitzen nuena. Inguru guztia, denak zeuden izaturik eta neuk ez nituen gehiago kezkatu nahi.

Denbora asko pasatzen nuen bakarrik, itsaso aldera jotzen nuen askotan. Naturak, haizeak, urak, erlaxatzen ninduten. Barruan tentsio handia nuen, anaiak hutsune handia utzi zidan, minez betea nengoen, eta itsasoak lasaitzen ninduen denbora tarte txiki batean bazen ere. Gero eta urrutiago sentitzen nintzen denengatik, gero eta itxiago.

2.1 Fitxa

Egin genezakeen guztia egiten genuen anaiaren berri izateko, baina ezer ez. Itxarotea soilik gelditzen zitzaigun.

Garai horretan puenting-a eta eskalada egiten nituen, maiz. Beldurra pasatzen nuen, baina nire barruan zerbaitek hori egitera bultzatzen ninduen, bizirik egon nahiak, agian, ez erortzeko, akaso. Gero eta deserosoago sentitzen nintzen neure buruarekin eta besteekin, ni neu izaten uzten ez zidan horma handia nuen aurrean eta hori ezin nuen eskalatu, ez nekien nola eskalatu. Edozerk sumintzen ninduen, ezin nuen lorik egin, oso urduri nengoen. Ez nuen horrela egon nahi, baina ez nekien beste modu batera egoten...

Azkenean, maitasuna agertu zen, baldintzarik gabeko maitasuna, eta bere laguntzaz eta bere bidez neure burua ezagutzen hasi nintzen; beste maitasun-giroek infernu horretatik ateratzen lagundu zidaten. Ez da bide erraza izan, ezta motza ere, baina oroitzapen ezin hobeak bizi izandako bidea izan da.

Eskerrik asko, bide hori neurekin batera egin duzuen guztioi!

2.2 Fitxa

Norberak erantzun beharreko galderak.

Ahalik eta zintzoen jardun, zeure buruarekin eta kontzientziarekin, galdera hauek erantzutean. Zeuretzat dira erantzunak; ez dizkiozu inori eman behar, ezta jendaurrean irakurri behar ere.

·Zeure ustez, kasu bietan berdin urratu da giza duintasuna, edo desberdin sentitu dituzu bi lekukotasunak?

·Pentsatu, une batez, zeure anaia, aita edo ama dela atentatuan hildakoa, zeure familiako norbait. Zeure ustez, bada kausaren bat munduan maite dituzunetako baten bizia baino garrantzitsuagorik?

·Zer gustatu zaizu gehien bi lagun horien lekukotasunetik? Zer sentiarazi dizute: oinazea eta erresumina, ala oinazea eta gizatasuna? Zer erakutsi dizute?

·Hurbildu zatzaizkio inoiz sufritzen ari den norbaiti zeure elkartasuna eskaintzeko eta haren oinazea arintzen saiatzeko? Izan duzu inoiz beste norbaiten beharrik zeure sufrimenduan laguntzeko? Nola sentitu zara?

2.3 Fitxa

1. zatia Enpatia

- Besteen sufrimendua geurea balitz bezala sentiarazten digun giza gaitasuna da enpatia, eta sufrimenduaren zergatietan eta ondorioetan esku hartzen laguntzen digu, geure aukeren arabera.
- Eraldatze-ahalmen izugarria du enpatiak, geure buruaz, besteez eta inguratzen gaituen munduaz kezkatu eta arduratzeko eta haietan jarduteko aukera ematen baitigu. Elkartasunaren eta altruismoaren oinarria da enpatia.
- Geure mundua berregiteko aukera dugunez, egoismo-bulkada hutsa baino zerbait gehiago izatea aukera dezakegu. Geure enpatia eta elkartasuna garatzea hauta dezakegu.
- Berezkoa du enpatia geure izateak, gara dezakegun ahalmena da; beraz, zuzen-zuzenean mintzo zaigu eta zuzeneko konpromisoak eskatzen ditu:
 - Muturreko sufrimenduak, dolua, gaixotasunak, norbaiten heriotza, bakardadea... jasaten dutenei laguntzeko, babesteko eta elkartasuna erakusteko konpromisoa.
 - Berdintasunaren eta elkartasunaren aldeko konpromisoa, desberdintasunak dakarren sufrimenduari aurre egiteko.
 - Justiziaren eta elkartasunaren aldeko konpromisoa, injustiziak dakarren sufrimenduari aurre egiteko.
 - Bakearen, indarkeriarik ezaren, berradiskidetzearen eta elkartasunaren aldeko konpromisoa, gerrak, indarkeriak eta giza eskubideen urraketek eragiten duten sufrimenduaren aurka.

Norberak hausnartzeko galderak.

·Prest nago besteen sufrimendura hurbiltzeko? Baita neuregandik urrutien daudenen sufrimendura hurbiltzeko ere?

·Prest nago injustiziengatik kezkatzeko eta haiek eragozteko edo gainditzeko neure apurra egiteko?

·Prest nago itsu, gor eta mutu ez egoteko besteen giza duintasunaren aurkako mespretxu- edo gutxiespenepaiaren eta etiketaren aurrean?

·Orain arte ez nekien zerbaitez ohartu naiz? Alda dezaket zerbait neure barruan enpatiari eta biktimekiko elkartasunari bidea irekitzearen?

2.3 Fitxa

2. zatia

Taldeka hitz egiteko kasuak eta gauzak

Lau sufrimendu-mota eta lau konpromiso aipatu ditugu aurreko fotokopian. Taldeka, horrekin lotutako zenbait kasu eta gauza aipatu. Ezkerreko laukietan, ezagutzen ditugun edo sufrimendu mota bakoitzean burura datozkigun kasu zehatzak idatzi; eskuinekoan, berriz, konpromiso horiek gauzatzeko.

Muturreko mugen, doluaren, gaixotasunaren, norbaiten heriotzaren, bakardadearen... aurrean, sufritzen duena babesteko, laguntzeko eta hari elkartasuna adierazteko konpromisoa.

Horrelako sufrimendu **kasuak**

Egin litezkeen **gauzak**

Desberdintasunak eragiten duen sufrimenduaren aurrean, berdintasunaren eta elkartasunaren aldeko konpromisoa.

Horrelako sufrimendu **kasuak**

Egin litezkeen **gauzak**

Injustiziak eragiten duen konpromisoaren aurrean, justiziaren eta elkartasunaren aldeko konpromisoa.

Horrelako sufrimendu **kasuak**

Egin litezkeen **gauzak**

2.3 Fitxa

Gerrak, indarkeriak, giza eskubideen urraketek... eragiten duten sufrimenduaren aurrean, bakearen, indarkeria ezaren, berradiskidetzearen eta elkartasunaren aldeko konpromisoa.

Horrelako sufrimendu **kasuak**

Egin litezkeen **gauzak**

3.2 Fitxa

Gizakiaren izaera mugatuari buruzko esaldiak

1. Partzialtasuna. Ez dugu dena ikusten; ez dakigu dena. Beti da partziala geure ikuspegia.
2. Inperfekzioa. Izaki ez-perfektuak gara; egiten dugun guztia hobetu egin daiteke.
3. Ezintasuna. Dena ez dakigu, dena ezin dezakegu.
4. Apaltasuna. Ez gara ez egia ez arrazoi osoaren jabe.
5. Gatazka. Huts egiten dugu, bidegabekeriak egiten ditugu, oinazea eta mina eragiten ditugu (baita gehien maite ditugunei ere). Gatazka beti daramagu geurekin.
6. Berdintasuna. Geure izaera mugatuak batu eta berdindu egiten gaitu denok.
7. Bizikidetzeta. Neure izaera mugatuari esker ulertzen dut besteena. Elkarrekin bizitzeko eta gatazkak konpontzeko, denok (besteak eta neu) mugatuak garela gogoratu behar dut.
8. Elkartasuna. Neure izaera mugatuari esker ulertzen dut elkartasunaren edo giza duintasunaren sakoneko esanahia. Mugatuak garenez, elkarri lagundu beharra daukagu.
9. Elkarrizketa. Elkarrizketa da neure ikuspegiak beti direla osagabeak onartzea. Mugatua naizelako dira osagabeak neure ikuspegiak. Elkarrizketari esker, zabaldu egiten dut neure ikusmira.
10. Berradiskidetzeta. Geure ahuleziaz ohartzeak lagundu egiten digu bizikidetzara, elkarrizketara, barkamenera eta berradiskidetzera hurbiltzen.

Lanketa proposamena

Gizakion izaera mugatuaz hausnartuko dugu. Pentsatu, une batez, zertan eragiten dizun zeure bizitzan eta besteekiko bizikidetzan mugatua izateak. Ondoren, erantzun galdera hauei:

·Berrikusi puntu bakoitza. Egia da, zeure ustez, esaldiek diotena? Ez zaude ados zerbaitekin? Zerekin?

·Nola sentiarazten zaitu hori irakurtzeak? Zeure iritziz, badu zeurekin loturarik hor jartzen duenak? Baieztapen horietatik (onak nahiz txarrak, zein da zeuri gehien dagokizuna?

·Berridatzi, singularreko lehen pertsonan, lehenbiziko bost puntuak. Begiratu zeure buruari baieztapen bakoitzean, eta azertu zertan eragiten dizuten.

·Saiatu azaltzen, zeure erara, 6tik 10era arteko puntuak aurretik dituzten hitzekiko daukaten lotura.

3.3 Fitxa

Amaierako ondorioei buruzko hausnarketarako ideia batzuk

·Iraganari dagokionez, zergatik gertatu zen gertatu zena? Non jarri behar dugu giza duintasunaren balioa? Uste dut eta pentsatzen dut hemen bizi garen guztiok eskubide berak ditugula, edo batzuek eskubide gutxiago izan beharko lituzketela iruditzen zait?

·Orainari dagokionez, zer adierazten didate «elkartasuna», «sufimendua», «injustizia», «biktimak»... hitzek? Zer konpromiso dakarzkiz, zehazki, neure enpatia-gaitasunak?

·Gerora begira, zer egin dezakegu gizarte hobea eraikitzeko, indarkeria prebenitzeko eta bakezko bizikidetzaz izateko? Zer oinarri etikok lagun diezagukete mundua hobetzen, geure ingurutik hasita?
